

Arrasate

P R E S S

1997ko
irailak 19
376. zenb.



Mondragon Unibertsitatea

Deba Garaiko eskola unibertsitarioek, eta Ikerlan eta Ideko ikerketa zentroek, lehen unibertsitate kooperatiboa jarri dute martxan, MCC eta Ulma talde enpresarialen laguntzarekin, Mondragon Unibertsitatea jaio da.



Case Diarrakal

San Andres auzoa
Tel.: 79 18 92

FAGOR



ETORRI GURE ERAKUSKETARA ETA
FAGOR MODELO BERRIAK AURKITUKO DITUZU.

Zinemaldiaren zeharkako eragina

Donostiako Zinemaldia hasi da eta ziur nago bertora inguratzen zaretenek zuen filmea aurkituko duzuela (200 pelikula 10 egunetan). Nola ez, aukeratzeko trebetasuna izan behar. Eta hori bakoi-tzaren esku dagoenez, ez dut gomendio konkreturik emango. Baina esan nahi dizuedana beste zerba it da: zinemaldia bezalako ekitaldi bat hain gertu izatea guztiontzat erakargarria dela, eta gure azalene sententziazio berriak bizitzeko momentu ezin hobea. Ez bakarrik proiektzio gelaren iluntasun isilean, baizik eta egunear zehar 2 edo 3 filme ikusita edozein logelako iluntasun isilean. Horrelako logela zinematografiko batean pasa nituen joan den urteko Zinemaldiaren gau batzuk. Lehenengoa pasa ondoren, ezer berezirik ez logelaren eta nire artean. Beharba-



Iban del Campo

da beste norbaiten gela zenez, haren eta nere harteko harremanak debekatuta zeuden (lagun onenaren neskarekin gertatzen den antzera). Ezer, oheko malgukiak nire gorputzean ezik. Baina amets bat izan nuen, eta amets hartatik gela ezezagun hartara bueltatzerakoan aldaketa nabaritu nuen. Beharbada logelaren eta nire arteko

ezezeztasunak sortu zuen sententzibilitate berri hura, eta honela logela hartako edozein txikitatuni, zentzu bat ematen hasi nintzaion. Agian pertsona ezezagun batekin topo egiten dugunean bezala, errazagoa suertatzen zaigu gure sekretuak azaltzea.

Gauero, gerizpe eta argizko errepidea isladatzen zen logelako sabaian; kotxeak gora eta behera etengabe, eta ni gidariak ikusi barik. Pertsiana magiko hark sortzen zuen argitasun mugikorak zintzilik zegoen lanpara, harrapakari beldurgarrian

bihurtzen zuen. Ohe ondoko ispilu hark, ez zuen erreflexiorik egiten, nire irudia isladatu baino lehen.

Ezezeztasuna ezinezkoa zen ametsetik bueltatzerakoan, ezezeztasuna da pentsamendu ezezagunak loratzeko aitzakia. Zinemaldia liluragarria izango da, baina batez ere pentsamendu edo irudi berriak sortzeko gai den heinean, ezezeztasunean zerba it aurkitzera laguntzen duen heinean.

Pozgarria izango litzateke, hain garesti irtetzen zaigun Zinemaldiak ordainezina den zerba it gureganatzea: irudimena. Luis Buñuel handiak zioenez, gizakia irudimenean bakarrik izan daiteke guztiz aske. Adibidez, Donostiako logela hartan izan nuen ametsean, filme batetik ateratako neskatoarekin (Beatrice Dalle, uste dut) reggae-dantzan nengoela, musikarietako bat inguratu zitzaidan nire alaitasuna eskertzeko. Bob Marley bera zen musikari hura. Nola diren ametsak! Orduan esnatu nintzen logela hartan eta ezin izan nuen onartu, honelako jaigiroa zuen amets batetik, ezezeztasun hartara bueltatzea. Orduan saiatu nintzen (erdi lo, erdi esna) ni eta gela hartako harremanak hobetzen. ■

“Ohe ondoko ispilu hark, ez zuen erreflexiorik egiten, nire irudia isladatu baino lehen”



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otelora kalea, 31 20.500 ARRA-SATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Beñardoko Kortabarria, **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, **Publizitate:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15), **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Golo Arana, **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Orozengoa, Mikell Irizar, Udaleko Gaztaria Salla, ASA Idoia, Eneko Allende, Besaide M. E., Carmelo Unibarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Carmelo Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña, **Banaketa arduraduna:** Jasmone Mendizabal-AED, (Tel.: 77 12 28), ©ARRASATE PRESS, **Tirada:** 6.200, **Lege-Gordailua:** 1124/88, **ISSN:** 0214-4654, Frankeo konertzatua, **Inprimategia:** Gertu Kooop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

376. zenbaki honetan

1997ko irailaren 19an

Asteko agenda	4/5	Orain eta hemen	11/13	Aurrez aurre	22/23
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak	14/15	Kulturaren txokoa	24/25
Inkesta	7	Asteko gaia	17/19	Azoka plaza	26/27
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/21	Foto zaharra	30

Ikuspegia

Iban del Campo 3

Iritzia

Jaione Isazelaia 3

Kirolak jokoan

Arrasate eskubaloit taldea 20

Aurrez aurre

Maidar Egües eta Unai Torres 22

Kulturaren txokoa

Julio Galarta 24

Asteko gaia

Mondragon Unibertsitatea 17/19

Hile honetan Mondragon Unibertsitatearen lehen ikasturtea hasi da. Karrera bukatzea lortzen dutenek, giza-baliabide, giza zientzia edo teknologiko titulazioak eskuratuko dituzte.



19

ostirala

■ ZINEA

"Ajuste de cuentas". Alai zinema 7etan eta 10etan.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Arratsaldeko 7etan, Arrasate margo taldearen pintura erakusketaren inaugurazioa.

21

igandea

■ ZINEA

"Bean". Alai zinema 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Angiozar, Elgeta, Eibar, Areitio gaina, Berriz, Elorrio eta Arrasate. 62 kilometro. Irteera 9etan Monterrondik.

■ BESAIDE EGUNA

11etan meza Besaiden. 11.30etan Mendizale Federazioko ordezkariaren hitzaldia. 12etan Bertsolariak: Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Txalaparta, trikitilariak eta Elorrioko Besaide taldearekin dantzak.

23

asteartea

■ ZINEA

"Bean" Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ ODOL EMATEA

Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

25

osteguna

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

Abaroan, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

■ HITZALDIA

Gaia: Kirolak haurren garapen osoan duen garrantzia. Monterronen arratsaldeko 6.30etan. Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta.

20
larunbata

■ ZINEA

"Bean". Alai zinema 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ROBERTO MADINABEITIARI OMENALDIA

Arrasate eskubaloit taldeak duela bi urte hil zen Roberto Madinabeitia jokalaria ohia-ri omenaldia egingo dio Iturripen. Bi neurketa antolatu dira: arratsaldeko 4etan emakumezkoena eta 6etan senior mailakoa. Robertoren senitartekoek oroigarria jasoko dute.

■ MANIFESTAZIOA ARETXABALETAN

Kepa Urria atxilotu zuten Guardia Zibilen aurkako epaiketa dela eta, manifestazioa Aretxabaletan arratsaldeko 7.30etan.

22

astelehena

■ ZINEA

"Bean" Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ ODOL EMATEA

Anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

■ ENKARTELADA ARETXABALETAN

Kepa Urria atxilotu zuten guardia zibilen aurkako epaiketa dela eta, enkartelada Aretxabaletan arratsaldeko 7.30etan. Asteazkenara arte egunero egingo da.

24
asteazkena

■ GUDARI EGUNEKO EKINTZAK

Mahaingurua presoen egoerari buruz. Udaletxeko Pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Arrasateko KAS-ek antolatuta.

■ GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

San Andres auzoko alkate-tzan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

■ HITZALDIA

Ibai Arte elkarteak "merkataritza eta banka, nola negoziatu" gaiaren inguruan hitzaldia antolatu du. Hitzaldia Lanbide Eskolako aretoan izango da eguerdiko 2.30etan. Hizlaria: M. Asun Ogueta Elkargi elkarteko partaidea

■ **ERAKUSKETA MONTEIRONEN**

Irailaren 22tik 28a arte erakusketa Monterronen. Gaia: Arrasate Kirol Proiektua: zortzi urte kirolean hezitzen. Erakusketak bi helburu ditu Arrasate kirol proiektua ezagutaraztea eta eskola kirolak duen garrantzia erakustea. Orduategia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **BESAIDEREKIN MENDI IRTEERA**

Irailaren 28rako Besaidek mendi irteera antolatatu du Bidarrai, Irubelakaskoa eta Amaiurrera. Izen ematea irailaren 22an, 23an, 24an eta 25ean, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.

■ **HASERAKO MASAIA IKASTAROA**

Irailaren 27tik abenduaren 13a arte, larunbatero arratsaldeko 5etatik 8ak arte emango da hasierako masaia ikastaroa. Besteak beste ekialdeko eta mendebaldeko masai desberdinak irakatsiko dira. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira edo zuzendu Jose Luis Iñarra pasealekuko Yoga Elkartera. Emalea Jose Luis Armendia izango da.

■ **HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORREKO ZENTROAN MATRIKULA ZABALIK**

Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentroan matrikula zabalik dago irailaren bukaera arte. Matrikula egin edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak 77 11 72 zenbakira deitu edo zentroak Ferrerías

kalean duen egoitzara zuzendu. Orduategia: 10etatik 1ak arte eta 4etatik 7ak arte.

■ **GERIATRIA IKASTAROA**

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroak geriatria ikastaroa antolatu du urritik martxora arte. Klaseak astelehenetik ostiralera emango dira goizeko 9etatik 12ak arte. Izen ematea irailaren 30a arte egin daiteke. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira.

■ **PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN**

Irailaren 19tik urriaren 5a arte, Arrasate margo taldearen erakusketa Harresi aretoan. Orduategia lanegunetan 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **JULIO GALARTAREN ERAKUSKETA ZARAUTZEN**

Irailaren 30a arte Julio Galartaren pintura erakusketa Zarauzko Kayua aretoan. Orduategia: asteartetik zapatara arte 11.30etatik ordubata arte eta 6etatik 9ak arte. Jaiegunetan 6etatik 9ak arte.

■ **KORREOS-en OPOSAKETAK PRESTATZEKO IKASTAROA**

Deba Garaiko Langile Komisioak eta Correoseko sekzio sindikalak oposaketak prestatzeko ikastaroa antolatu dute. Klaseak urriaren 27tik aurrera astean hiru bider emango dira: astelehena, asteartea eta asteazkenetan arratsaldeko 4etatik 6ak arte. Interesatuok deitu 79 52 60 zenbakira edo lokalera zuzendu.

I K A S T A R O G A Z T E A K

EYSKAL DANTZAK

“Lore Gazteak” taldearen eskutik.

- 15 urtetik gorakoei zuzenduta.
- Urriaren 10etik Santamasak arte.
- Ostiraletan, 7etatik 8.30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.

OHARRA: BIKOTE MIXTOEK LEHENTASUNA IZANGO DUTE IZEN EMATEAK:

GAZTE BULEGOAN: 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 19**
• Gauzez: Irizar, Erguin.
- Larunbata 20**
• Gauzez: Amezua, Santamaina.
- Igandea 21**
• Gauzez: Ruiz, Maala.
- Astelehena 22**
• Gauzez: Morales, San Andres.
- Asteartea 23**
• Gauzez: Azkoaga, Ferrerías.
- Asteazkena 24**
• Gauzez: Español, Iturriotz.
- Osteguna 25**
• Gauzez: Corcuera, Musakola.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
 Iguatorialdea . . . 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00
 (emakumeak) . . . 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
 Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
 • Espesialitateak . . . 77 05 78
 . . . 77 12 64
 Oñati . . . 78 08 52
 Eskoriatza . . . 79 98 58
 Arexabaleta . . . 79 74 58
 Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati . . . 78 04 11
 Bergara . . . 76 14 69
 Arrasate . . . 79 14 39
 Arexabaleta . . . 79 10 52
 Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
 Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea . . . 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) . . . 12 01 62
 Gasak . . . 900 40 05 23
 . . . 79 78 44
 . . . 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak . . . 79 12 22
 PESA . . . (945) 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
 Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia . . . 79 58 77


The Best Small Papers

Egunkari Txiki Onenak

ARRASATE PRESSEK diseinuaren arloan, mundu mailako errekonozimendua Ajaso du. Onarpen edo errekonozimendu hori, SND (*Society of Newspaper Design- Egunkarien Diseinurako Elkarteak*) elkarteak egin dio, diseinu gaietan prestigio handiena duten sariak ematen dituen elkarteak.

SND, mundu osora iristen den diseinu elkarte bat da. Mundu osoko aldizkariak eta egunkariak osatzen dute SND elkarteak, eta bere eginkizuna aldizkari gintzan eta egunkari gintzan diseinuak duen garrantzia, aztertu eta hobetzea litzateke.

Aipatutako elkarte horrek *Design* hiruhilebetekaria argitaratzen du, diseinuaren arlo desberdinak aztertuz. Normalean gai monografikoak izaten dira. Argitaratu duen azkenak, 64. zenbakiak, "The Best" (*Onenak*) darama izenburutzat. Hileak eman dute *Design* aldizkarian mundu zabaleko eta 10.000 aleko tirada baino txikiago duten aldizkari eta egunkariak jasotzen, gero onenak ale honetan argitaratzeko asmoz. *Design*-en azken zenbakian beste atal batzuekin batera "Egunkari Txiki Onenen" atala agertzen da, eta bertan, beste sei argitalpenen artean geurea (1996ko uztailaren 19ko alea) aukeratu dute publikatzeko. Argitaratu dituzten astekari edo egunkarien artean ARRASATE PRESS da ingelesez idazten ez duen bakarra.



**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa

79 42 22

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Zela ikusten duzu tabernen itxiera ordua aurreratzea?



Elisabeth Mendizabal
Etxeandrea
(67 urte)

Gauetan ez naiz kalera ir-
ten, beraz ez zait inporta lehe-
nago edo beranduago itxi.



Susana Gartzia
Langilea
(24 urte)

Txarto dago. Gainera,
ordubete lehenago itxiz gero,
giroan igerriko da, eta jende-
ak kanpora joateko ohitura
hartuko du.



Idurre Arginzoniz
Ikaslea
(23 urte)

Ez zait ondo pentsatzen.
Dena dela gaur arte ez dut ige-
rri. Elorrikoa naiz eta lehen
bezala ixten dute



Oier Arzamendi
Langilea
(21 urte)

Oso txarto, lehenago ixten
badira giroa galduko da eta
etxera joateko gogorik ez bada-
go, kotxez mugitu behar. Ez
da plan ona!



Txema Regaño
Langilea
(40 urte)

Niretzat ez dago ondo.
Arrasaten bestela ere oso agu-
ro ixten dira. Araba aldean esa-
tebaterako beranduago ixten
dute. Legea martxan jartzea ez
da ona izango.




Mila Lizundia
Etxekoandrea
(32 urte)

Gazteendako txarto dago.
Ni neu ez naiz gauetz irteten
eta egia esateko ez dut igerri
behar aldaketa.



Jesus Jauson
Langabetua
(25 urte)

Hori ez dago ondo. Arra-
saten bestela ere ez da giro han-
dirik izaten eta orain tabernak
lehenago ixten badute, pentsa!



Inaxio Azkarraga-Urizar
Langilea
(35 urte)

Txarto dago, bai gazteen-
dako eta baita tabernarienda-
ko ere. Gainera giroan ere
nabarituko da lehenago ixtea.

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

LILUR

MARITXU KAJOIRAKO

- Zeure soinekoak egiteko oihal eta osagarrietan aukera zabalena.
- Soinekoak moztu eta jozten dira.
- Egindako soinekoak saltzen dira.

Oso prezio onak! Zatoz lehenbailehen

Zerkaosteta kalea, 5 behea • ARRASATE tel: 79 89 72

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

USTEAK USTE

Izarren hautsa?

Zeluloidezko izarrei begira jarriko da egunotan bat baino gehiago. Donostiako zinemaldia errudun. Erabat urrun geratzen zaizkit pantaila handiko eta txikiko izarrak. Hori horrela izanik, harritu egiten nau jendeak dieg miresmena oraingo filmean polizia, hurrengoan lapur, eta ondorengoan, esaterako, ez dakit zein erresumako printze edo printzesa moduan agertzen diren horiei. Ordu pare batez errealitatek kanpo egoteko balekoak direlakoan nago, baina hortik hotelaren aurreko iladan orduak eta orduak ematera, ustezko izarren autoa abiada bizian iristen ikusi, bizkarzainez inguratutako tipoa edo tipa jeitsi, bere eskuaren agur gisako mugimendu bat ikusteko ...

Igualean nahiago dut izarrei begira jartzea, benetakoei jakina. Egin aproba, mantatxoa hartu, konpañia ona, egunotako epeltasunaz udazkeneko zerupe izartsuan etzan... eta behar bada iragarri ez den eklipsaren bat bizi ahal izango duzue.

Beñardo Kortabarria



“Linua, ehuna, artilea” liburua

Jaione Isazelaia

1993an Udala eta UNE-Deko Euskal Kultur Departamenduaren arteko komenio bat sinatu zen, azken honek “Lexiko Berezituak” izeneko ikerketa lanen zuzendaritza eta gestioa bere gain hartzen zuelarik.

Juan Martin Elexpuruk eta Jerardo Elortzak proiektu honen berri eman zidatenean, besterik gabe nere laguntza eskaini nien galtzar dauden lexikoen bilketa guztiz preminazkoa iruditzen zitzaidalako. Lexiko Berezien Proiektua aurrera eramateko talde bat eratu zen, kide bakoitzak bi edo hiru langintza biltzeko ardura hartu genuelarik. Dagoeneko sumatzen genuen hil zorian

zeuden langintzen hiztegia benetako altxorra zela eta merezi zuela argira ateratzea. Lan honi lehenetsuna ematea erabaki zen garai hartan; dena dela, besteren batzuk ere burutzea zen orduko gure asmoa.

Gaia aukeratzeko eskatu zidatenean ez nuen zalantzarik izan, linagintza eta ehungintzari buruzko teknikek egundoko jakinmina sortu baitzidaten aintzina. Lau urte

pasa dira ordutik eta lanak horren berandu argitaratzearen arrazoirik nagusia EKDren desagertzea izan zen.

Liburuak lau zati edo atal ditu, lehenengoa historia apur bat kontaktzen da. Bigarren atala teknikei buruzkoa da, bertan linua eta artileari buruzko teknikek azaltzen dira. Ondoren lekukoen transkribaketak datoz. Eta gero hiztegia, saiatu gara fitxak osatzeko orduan gaur egungo formak erabiltzen. Eta gero eranskinak, hemen udaletxeko artxibotan topatutako datuak daude, zera ehule eta harigileen izenak. Honen atzetik Iñaki Zumaldek jasotako agiri bat dator, “Las Ordenanzas de los pañeros vergareses” XV. mendekoak.

Lan hau argitaratzen den lehenengoa bada ere, beste hiru bidean datoz, itsaropentsu gaude luzaro gabe esku artean izango dugulakoan, Argiñe Urkiolak eta Amaia Olañetak egin zuten *Txondorrak*, *Karobiak eta Elurzuloak*, Anaje Narbairak egindakoa, *Zura*, *Arotzak eta Etxegileak*, eta Iñaki Arana eta Lide Oregirena, *Burdina*, *Errementariak eta Perratzaileak*. Liburu hauen helburua honakoa da: gure aurretikoek mendetan zehar pilatutako jakinduria pusketatxo bat, behintzat, batzea eta zabaltzea, “bizimodu modernoak” izeneko alper-arri erraldoi horrek dena lautu eta berdindu baino lehen.

“ Hil zorian zeuden langintzen hiztegia benetako altxorra da ”

IRATI TABERNA
 Ferrerías kalea • Tel.: 79 56 11
 ARRASATE

ITSASKI
 ARRANDEGIA
 Arrain freskoa eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tel.: 79 98 94

ARRASATE 97

Lehiaketak

- Ipuina
- Bertso paperak
- Eskualdeko euskararen grabaketak
- Ikus-entzunezkoen gidoigintza
- Komikia
- Antzerkigintza
- Poesia

**ZEUREA
AUKERATU
ETA PARTE
HARTU!**

Laguntzaileak



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoa
Foru Aldundia

ADI!

Aurkezteko epea: urriaren 31

Helbidea: Pablo Uranga 4.zkia, behea. ARRASATE

Telefonoa: 77 12 28



JOKIN ZAITEGI XI. ITZULPEN LABURREN SARIKETA

1go saria.....200.000 pta.

2. saria.....100.000 pta.

Laguntzaileak



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoa
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA



kutxa fundazioa




muebles

ARKAZ

**Erakusketaren
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

ARETXABALETA

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxe: 79 23 51

astea bi hitzetan

■ **Arrasatearrak liburua aurkeztu Bergaran**

“Linua, ehuna eta artilea” izenburuko liburua aurkeztu zuen Jaione Isazelaia arrasatearrak Bergarako Udaletxean pasa den ostira-lean. Pleno aretoa jendez gainezka zela, Bergaran bizi den arrasatearrari Bitoriano Gallastegi alkateak, Juan Martin Elexpuru idazleak, eta Miren Azkarate euskaltzainak lagundu zioten liburuaren aurkezpenean.

■ **700en bat lagun erro-mes Arantzazura**

160 lagun oinez eta beste 500en bat autobusez joan ziren pasa den domekan urteroko Arantzazuko erromesaldira. Jose Mari Astigarragak eman zuen ohiko

meza eta udalaren ordezkariak ere bertan izan ziren.

■ **Gobernu Batzordearen akordioak**

Astelehenero moduan bildu da udalaren Gobernu Batzordea aste honetan. Garrantzi bereziko gairik ez mahai gainean, baina bai gutxienez aipamentxoak merezi dutenak.

San Josepeko kanterari ustiatze proiektua aurkezteko epea luzatzeko erabaki zen, azaroaren 7a arte. Data hori izango du, aipatutako proiektua aurkezteko azkena. Modu berean, Arrasateko kale-izenen planoaren serie berri bat argitaratzeko erabakia. 2.000 plano berri izango dira, “Trabajos Catastrales” enpresak egingo ditu

eta 245.920 pezeta erabiliko dira horretan. Horrekin batera, Amaia Udal antzokian suteen kontrako neurriak hartzeko obren ziurtagiri bat ordaintzea, eta momentuz Monterron jauregian zentzu bereko obrarik ez egiteko erabakiak hartu ziren.

Bestalde, udalarekin zerikusi zuzena ez duen pare bat gai ere jarri zen mahai gainean: bata Aldundiaren agiri bat, Gasteiz-Eibar autobidearen proiektua jendarearen erakusgai dagoela esaten duena, irailearen 30a arte, Aldundian bertan; bestea, Abiadura Handiko Trenaren proiektua dela eta, Jaurlaritzak egin behar duen Ikerketa Geoteknikoarendako baimena ematea.

“**MCCK** beti bere inguru ekonomiko-sozialari etengabe egokitzeko beharra beti nabaritu du, horrela bizi iraun ahal izateko eta xede berrien bila joan ahal izateko.

(...) Nahiz eta bizitzen jarraitu ahal izateko inguruari egokitzea eta aldatzea beharrezkoa dela onartu, aldaketan aurrean dauden kontrako jarrerak pairatu behar izaten ditugu. Hala ere, zailtasunak gainditu behar ditugu”.



ANTONIO CANELO
Euskaldunon Egunkaria
1997-9-18

UDAL EUSKALTEGIEN KANPAINA

“Ongi etorri euskarara” lemapean, Gipuzkoako Udal Euskaltegien ikasturte berriaren aurkezpena egin zen Donostian. Aurkezpenean, besteak beste, Jose Mari Loiti egon zen, bertako Udal Euskaltegiaren arduradunarekin batera. Erabilera-aren garrantzia aipatu zuten: “Euskal hitzunok euskara ikasten ari direnei euskaraz bizitzeko aukera bermatu behar diegu”.



Euskaldunon Egunkaria

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa • Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritate
eta hizkuntz bereziera)
Logopedia • Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak,
enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

Tasen eta zergen bidez 939 milioi jaso zituen iaz Arrasateko Udalak

Udalak oraintxe jakinarazi duenez azaroaren 10a arte 1997ko iharduera ekonomikoen gaineko eta ondasun higiezinaren gaineko zergak kobratuko ditu. Modu berean azaroaren 8ra arte, 97ko bigarren hiru-hilabeteko ur eta zabor tasaren ordainagiriak kobratuko dira. Maiatzaren 30a baino lehen helbideratutako ordainagiriak kontu korrontetatik kobratuko dituzte zuzenean. Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunen helbideetara bidaliko dira ordainketa edozein banketxe, aurrezki kutxa edo Udal bulegoetan egiteko.

Kobratze abisuek jarri gaituzte zergen eta tasen bidean, zer dira? nolakoak?. Erantzunak ondorengo lerroetan.

'Urtean zehar heraitarrek ordaindu beharreko tasen eta zergen bidez Udalak diru kopuru handia hartzen du. Iaz esatebaterako Arrasateko Udalak 939 milioitik gora jaso zuen. Aurten ere beste horrenbeste lortzea espero dute. Zergak lege bidez ezartzen dira eta herritar bakoitzak ordaindu behar ditu; tasa berriz, zerbitzu baten truke erabiltzailak Udalari ordaindu beharrekoari deitzen zaio.

ZERGA MOTAK

Zerga nagusiak bost multzotan bana daitezke. **Ibilgailuen gaineko zerga:** ordain-



Urtean zehar zergen eta tasen bidez diru asko mugitzen da Udaletxean.

tzeko orduan kotxea handia edo txikia den hartzen da kontuan. **Ondasun higiezinako zerga:** etxebizitzaren koka-pena, metro karratuak eta materialen araberakoa. **Iharduera ekonomikoen gaineko zerga:** autonomo guztiek ordaindu behar dute eta zerga baloratzeko orduan aktibitatea, pertsonaren egoera eta lokalaren metro karratuak kontatzen dira. **Obren zergak:** Edozein obra egiteko baimena eskuratzerakoan ordaindu beharreko zerga, aurrekontuaren %5koa. **Gainbalioaren zerga:** ondasun bat saltzeagatik Udalari ordaindu

beharrekoa. Metro karratuak eta kokapenaz gain, aurreko transmisioa noiz egin den begiratzen da.

TASA DESBERDINAK

Tasen artean hiru aipatu behar bereziki: **Uraren, zaborren eta zerbitzu edo udal ihardueraren zergak.** Uraren tasa kontsumoaren arabera neurtzen da. Zaborrena etxebizitza guztientzat berdina da, baina ez dendentzat edo enpresentzat. Bestalde Udalak zerbitzu bat edo iharduera bat eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa dago: Multzo honetan hilobia erostea, kiroldegiko zerbitzua, Iturbide egoitza edo Udal Euskaltegia egongo liratekete.

Arrasateko famili tipo batek ordaindu beharrekoa

Tasen eta zergen bidez famili batek Udalari ordaindu beharrekoa ateratzeko 4 kideko famili bat hartu dugu oinarri, bi kotxe eta etxebizitza bat dituen. Ordaindu beharreko gutxienezko kopurua litzateke:

• Uraren eta zaborren zerga - urtero	20.000
• Kotxea Handia	17.000
Txikia	8.000
• Ondasun higiezinaren gaineko zerga	25.000
Guztira	70.000 Pta.

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37
**I
L
E
A**
Ferrerias. 79 87 62

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

Iturbide Egoitzako klinika-laguntzaileen auziarekin bueltaka

Iturbide Egoitzako Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak, Blanca Roncalek, joan den astean komunikabide desberdinetan egindako adierazpenek, CCOO, LAB, ELA, eta ESK sindikatoen erantzuna ekarri dute. Besteak beste, egoitzaren funtzionamendu txarra, gastuek gora eginagatik zerbitzuan hobekuntzarik ez nabaritzea, eta barne gestio eskasa azpimarratzen zituen PSE-EEko zinegotziak.



Sindikatoak ez daude ados Iturbide Egoitzan gertatzen ari denarekin.

SINDIKATOEN ERANTZUNA

Blanca Roncalen adierazpenak direla eta, aurrez aipatutako lau sindikatuak idatzizko erantzun bat kaleratu dute. Sindikatuen idatzian lehenbizi, zerbitzuaren ustezko gestio eta antolamendu txarraren erantzule zuzena Zuzendaritza Batzordea dela esaten da, eta Blanca Roncali berari Iturbideko batzordekide izan den eta den heinean erantzunkizuna ere badagokiola.

Sindikatuaren arabera,

egoitzaren ustezko funtzionamendua txarraren arrazoia, langilegoaren ezegonkortasuna izango litzateke, ordezkapenekin eta oso egoera korapilotsuak gertatu izan direlako. Horrekin batera, sindikatuak diote adineko pertsonak ez daudela politikarien lehentasunen artean, ez ei dute eta egoitzaren egoera ezagutzen eta ezta bertan bizi direnen arazoak. Harri-dura ere agertzen da sindi-

katuaren idatzian, honako hau diotenean: "Harritu egiten gaitu, ordea, PSOEko kide batek aipatzea balizko defizit ekonomikoaren aitzakia halako gai batean. Izan ere, ezkertiarren oinarrizko baloreak izan dira gizarte-zerbitzuen elkartasuna eta kalitatea, ezkerrek beti defenditu baitu errendimendu ekonomikoa baino urrunago".

Ekonomia datuekin jarraitzen dute sindikatuek,

esateko Udalak klinika-laguntzaileak zuzenean kontratatuko balitu, 6 milioi baino gehiago aurreratuko liratekeela. 1995. urteko datuak agertzen dira lehenengo, zerbitzua azpikontratatzenean, 64 milioi t,erdikoak; udalak baldintza bereko kontrakoak zuzenean egingo balitu, kostea 58 milioi t,erdikoa izango litzateke.

Azkenik, egoitzan dauden familiartekoak dakartzatza gogora idatziak, "galdetu al die PSOEko zinegotziak familiartekoek jasotako zerbitzuaren kalitateari buruz? izan ere, ez dugu ahaztu behar aurrekontuaren herena jartzen dutela".

Gogora daitekeenez Iturbide egoitzaren arazoa, PSE-EEK orain arte izan duen jarraera aldatu eta azpikontratazioaren alde azaldu denean sortu da. Hori ikusita, langabezian gera zitezkeen 19 klinika laguntzaileak prentsaurreko baten bidez plazaratu zuten arazoa.



CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"

97/98 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Alemana, Frantsesa eta Ingelesa.

Haur, gazte eta helduendako klaseak eta orain ere "MULTIMEDIA" Sistema eskaintzen dizuegu.

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE
Tel.: 71 20 55

Olakua, 14 • OÑATI
Tel.: 71 60 00



ESKOLARAKO ITZULERA!

AMI OINETAKOAK

oinetako autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65



ZORIONAK SUKALDARI!

Alejandro Plaza urtebete zaharragoa egin da. Bere urtebetetzea Mallorkan igaro du eta Arrasateko lagunek ondorengo ohar txoa bidali nahi izan diote. "Mallorkan eta munduan dagoen sukaldari on eta guapoenari zorionak zure laguneren partez". Alejandro ez zara kekatuko!, gainera lagunek esan digute Mallorka aldean asko ligatzen duzula, beraz jarraitu horrela!



TXIRIRI OMENALDIA

Haritz Etxeberria, Txiri, omendu zuten lagunek pasa den zapatuan. Auto istripuz hil zeneko lehen urteurrena betetzen zela eta, gogoan eduki nahi izan zuten joandako laguna. Goizean omenaldi berezia, baba-jana eta arratsaldean Iskanbila eta Deskontrol taldeen kontzertua. Dagoen lekutik, pozik sentituko zen Txiri. Seguru.

Eh, pibe! zertan hemeen-dik? Abuztuan Argentinako Mar de Platara joan, Diego Armando Maradona Pelusa-rekin elkartu eta, nola ez, his-

PELUSA-REKIN HISTORIARA

toriarako argazkia atera zuten Norbertok eta Kristina Ortu-baik. Hori da zortea! Esan digutenez, Pelusa positiboa eman baino aste pare bat lehenago ateratakoa da. Aurpegi ona du Diegitok, ezta?



SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 79 22 55 79 14 25



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis


Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72



WINDSOR GAZTELUAN

BAT JAUN ETA BESTEA MORROI

Britania Handian zeudela Julitori eta Rauli Windsor gaztelua bisitatzera bururatu eta ederra gertatu zitzairen. Julitori, nonbait, abeltzain itxura ikusiko zioten edo abereak zaintzeko aparteko zerbeit zuela pentsatuko zuten, ze zaldi korta zaintzen jarri zuten. Raul berriz, Isabel II. ren lagun egin eta biek sekulako paseoak egiten ei zituzten jardinetan. Bat jaun eta bestea morroi. Zerbaitegatik izango da? Batek daki!



IZENA

Marian Porcel

26 urteko arrasatearra, egun osoko kazetari lanean hasiko da ARKOn.

Aurretik, Arrasateko

korrespontsal lanak egin izan ditu El

Mundo eta Egin egunkarietan. Arkon ere, astebukaratan eta arratsaldean egin izan du lan. Fagor Elekatresnak kaleratzen duen Geurean berripaperaren erredaktorea da.



Rent a Car
Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

MECA

**PUB
HAIZEA**



ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

ZU LAGUNTZEKO GAUDE!

- Gaisoak eramateko grua, komun-aulkiak, ohe artikulatuak.
- Eskumuturreko, belauko eta orkatilakoak.
- Lumbago eta ziatikarako NEOPRENOzko gerriko elastikoak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

ARKAZUZ

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaian
Betiko muntaiak

FAGOR



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxa: 77 04 55

Mondragon Unibertsitatea

Errealitate bihurtutako ametsa

On Jose Maria Arizmendiarririk Arrasateko unibertsitate kooperatibista bat amestu zuen. Bere heriotzatik 21 urte pasa direnean, Mondragon Unibertsitatearen lehen ikasturteari eman zaio hasiera. MUREn sortze prozesua luzea eta isila izan da. Joan den maiatzaren 30ean onartu zuen Euskal Legebiltzarrak. Arizmendiarririk amestu zuen bezala, enpresaren garapenera eta formaziora zuzendutako Unibertsitate kooperatiboa finkatuta dago.

2.300 ikasle inguruk hasi dute aste honetan Mondragon Unibertsitatearen lehenengo ikasturtea. Teknologia, giza zientziak, giza baliabideak edo irakaskuntza ikasteko prest, %20an igo dute iazko matrikulazio kopurua. Mondragon Unibertsitate berri honen Errektorea, Ignazio Lakunza, baikor azaltzen da ikasturtearen hasierari begira: "Publizitate aldetik berandu ibili ginen, Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 30ean eman zion eta onespina unibertsitateari. Hala ere aurrikuspenak bete dira eta jasotako erantzunarekin pozik agertu behar, batez ere titulazio berriek beharrezko ikasle kopurua lortu dutelako. Humanitateak-Enpresa lizentziatura guztiz berria da, baina dagoeneko 75 ikaslerekin hasiko da aurren".

MUK, bere titulazioak



Ikerlan eta Ideko bazkide laguntzaile izango dira eta MCCeta ULMA taldeak bazkide enpresarial.

homologatuta, lizentziaturak eta diplomaturak banatuko ditu. Akademikoki, Madrilgo orientabideetara egokitu behar izan ditu ikasketak eta kreditoen sistema ezarri. Aldaketak, betiko ikasketen berriztapena egiteko balio izan du. Aurren ere doktoradutza ezberdinak pres-

tatuko dira datozen urteetan eskaintzeko. Beraz, dena gertu Deba Garaiko Unibertsitate kooperatiboak bere lehen urratsak eman ditzan.

HEZKUNTZA, IKERKUNTZA ETA ENPRESA

Mondragon Unibertsitatearen

bihotza, hiru zatitan banatzen da: Mondragon Eskola Politeknikoa, ETEO eta Irakasle Eskola. Heziketa zentro hauek, Gizabidea fundazioa izango dute laguntzaile. Ikerlan teknologi ikertegia eta Ideko teknologia zentrua, bazkide kolaboratzaileak dira eta

MCC eta ULMA taldeko bazkide enpresarialak.

Esparru guzti horren uzta-durak, ikasleen eta enpresen arteko lotura estuagoak bertmatuko ditu. "Ikerkuntza zentroekin eta enpresekin elkarlana bultzatuko da. MUko ikasleek eta irakasleek, ikerketa zentroetan euren proiektuak garatzeko aukera izango dute, eta ikerlariek unibertsitatean klaseak emateko aukera. Berdin gertatuko da enpresekin". Horren inguruan, kooperatibismoa ikertuko duen talde bat osatu nahi da unibertsitateko irakasleekin. "Kooperatibismoa aplikatu bai, baina sekula ez dugu zer den irakatsi. Kanpoan hemen baino berba gehiago egiten da kooperatibismoaz. Etorkizunean aukerako ikasgai bihurtzeko landuko duen talde bat osatu nahi dugu".

MUko oinarri akademikoak amankomunak izango dira hiru zentroetan, baina bakoitzak bere gestioa eramango du. "Denok kooperatiba gara- esaten du Lakunzak-eta etorkizunean gestio bateratu bat lortuko dela uste dut. Are gehiago irakasleak zentro ezberdinetan lan egingo dutela kontuan hartuta".

MU VERSUS EHU?

Mondragon Unibertsitatearen eraketak polemika bizia sortu zuen. Euskal Herriko Unibertsitateari konpetentzia zuzena egingo ziolakoan, EHUren aurkako jarrera egongo zela zabaldu zen. Dena den, amaitutzat eman da. Aste honetan bertan, MUK, EHUak



Aste honetan hasi dira Mondragon Unibertsitateko lehen ikasturteak, datorren astean goi mailakoak gehit

eta MCCk akordio bat sinatu dute. Horren arabera, unibertsitate publikoaren ikasleek MCCko enpresetan praktikak egin ditzakete. Trukean, EHUk Mondragon Unibertsitateko zentroek, publikora atxikitutako zentro bezala zituzten zorrak kitatuko ditu. Akordio horren beste puntu garrantzitsu bat euskara bultzatzea izango da. Hiru

erakundeek, enpresa mundua euskalduntzeko ahaleginak egingo dituzte. Alde horretatik lan handia egin beharko da. "Momentu honetan, zentru bakoitzak egoera ezberdina bizi du. Eskola Politeknikoan lehenengo bi ikasturteak egin daitezke euskaraz, Eskoriatzan ikasturte guztiak eta ETEOn oraindik ez dago ezer. Injineritzari dagokionez zai-

la da ikasketak euskalduntzea, material gehiena erdaraz dagoelako. Dena den, espezializazioak euskalduntzea da gure asmoa. Ea denon artean giro euskalduna lortzen dugun".

AZPIEGITURA ETA BEKAK

Epe laburrean, azpiegitura gehiagoren beharrei aurre egin beharko die MUK. Errektore-

“ Kooperatibismoa aplikatu bai, baina sekula ez dugu zer d gehiago egiten da kooperatibismoaz. Etorkizunean aukeratu ik

IGNAZIO LAKUNZA (Mondragon Unibertsitateko errektorea)



Mondragon Unibertsitatearen ikasketak

Unibertsitatea osatzen duten hiru hezkuntza zentroek arlo ezberdinetako ikasketak eskaintzen dituzte. Dena den, ikasketa guztiak enpresa mundura zuzenduta daude, Irakasle Eskolak eskaintzen duen irakaskuntza tituloa ezik. Mondragon Unibertsitateak, lizentziaturak eta diplomaturak emango ditu, titulazioen homologazioa lortu duelako. Beltzez azpimarratutako titulazioak berriak dira.

MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA (Arlo teknologikoa)

- Antolakuntza Industrialaren Injinerutza
- Automatika eta Elektronika Industrialaren Injinerutza
- Injinerutza Tekniko Industrial Mekanikan espezializatua
- Injinerutza Tekniko Industrial Elektronika Industrialean espezializatua
- Informatika Sistemen Injinerutza Teknikoa
- Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa
- Diseinu Industrialaren Injinerutza Teknikoa. Azken ikasketa hau, datorren urtean hasiko da, 98/99 ikasturtean.

ETEO (Giza Zientziak)

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura
- Zientzia Enpresarialetan Diplomatura

IRAKASLE ESKOLA (Giza Baliabideak)

- Humanitateak-Enpresa Lizentziatura
- Irakaskuntza tituloa
 - Haur Hezkuntza
 - Ingles Filologia
 - Hezkuntza Berezia

gehituak zaizkie.

aren esanetan, lehenasuna emango zaio lekuaren arazari. Hasteko, Eskola Politeknikoaren egoitzak 300 plaza besterik ez ditu, eta dagoeneko beteta dago. Datorren ikasturteari begira, Irakasle Eskolak ez du tokirik izango; aurren bere plaza guztiak bete dituelako. Hurrengo urteetan ikasleen kopurua 3.000 ingurura igoko dela aurrikusita, epe

laburrean konpondu beharreko arazoa izango da lekuarena. "Bazkide enpresarialek egin beharko dute inbertsioa, dirulaguntza ofizialik ez dugulako. Dena den, bailarako Udalekin ere harremanetan jarriko gara".

Arrasaten pisuen alokairua garestia dela eta, ardurata azaltzen da Lakunza, baina bekak lagungarri gerta dai-

tezke. "Gobernuak ematen dituzenez gain, unibertsitateak beste bi laguntza eskaintzen ditu. Atzerrira joateko beka, eta egun erdiz lan egiteko aukera. 80 ikasle inguru ditugu eskolako zereginetan lanean".

ARGAZKI OFIZIALA

MUren sorrera pausoz pauso egin da. Orain, ikasturtea

abiatuta, inaugurazio ofiziala prestatuko da. Jaurlaritzako autoritateak gonbitatuko dira eta, nola ez, Jose Antonio Ardanza lehendakaria etortzea espero da. Inaugurazio data finkatu barik dago oraindik, baina egun horretan ateratako argazkia, herri honen historiara pasatuko da. ■

Marian Porcel

den irakatsi. Kanpoan hemen baino berba
ikasgai bihurtzeko landuko duen taldea osatuko dugu ”

Eskubaloi taldea

Aurpegi gazte eta berri ugari bigarren mailan

Mailari eusteko helburua rekin abian jarriko da Arrasate eskubaloi taldea irailaren 27an. Jesus Mari Herrero entrenatzailearen berbetan, bigarren mailan ere lehia izango da nagusi eta lehia horretan paper onena egiteko ilusioa izango du Arrasate jokalariei dagokienez, ia zortzi baja izan dituztenez territorialekoekin osatu dute taldea. Talde gaztea, azkarra eta arrasatearrez osatua izango da Herroren ustez 97-98 denboraldian ikusi ahal izango dena. Aurten gainera bidai motzagoak eta aurkari ezagunak izango dituzte aurrean. Horrek jakina ez du esan nahi denboraldia samurragoa izango denik.


Guztira 14 talde arituko dira bigarren mailan: Zumaiako Pulpo, Usurbil, Deusto, Portugalete, Donostiako Egia, Aloña Mendi, Euskal Herriko Unibertsitatea, Escolapios, Gasteizko Gure Auzune, Gasteizko Pilar, Pasaitarra, Errenderiko Ereintza, Pasaiako Donibane eta Arrasate. Azken hirurak lehen mailatik jeitsitakoak.

Lehen ihardunaldi ofiziala irailaren 27an Oñatik Aloña Mendi taldearen kontra izango badute ere, 20an Arrasate eskubaloi taldearen aurkezpena egingo da Iturripeko kiroldegian. Egun horretan Roberto Madinabeitiari duela 2 urte hil zen jokala-


Aurtengo jokalar berriak



Aitzol Okina
Atezaina
21 urte



Andoni Bragado
atezaina
19 urte




Oscar Orue
hegalekoa
23 urte



Manuel Carrasco
pibota
21 urte



Josu Arabaolaza
Lehen lerroa
23 urte



Aitor Orue
Lehen lerroa
19 urte

lari eta zuzendaritza batzordeko partaideari omenaldia egingo zaio. Omenaldi horretan bi neurrak jokatu dira: arratsaldeko 4etan jubentzia mailako emakumeek Aloña Mendiren kontra izango dute zita eta 6etan Arrasate eta Burgos nor baino nor. Atsedenean Roberto Madinabeitiaren familiari oroigarri bat eman diote.

Iaztik jarraitzen dutenak

Angel Moraleja, Fran Jimenez, Mikel Loiti, Asier Kortabarría eta Eneko Galdos.

Bajak

Ibon Alzelai (La Salle), Ibon Enbil (Arrate), Iñigo Lopez de Abetxuko (Sercoín), Ibon Azkue (Pulpo), Roberto Zabala, Eneko Arrieta (Burgos), Iñaki Irurtia (La Salle) eta Jon Iraola.


lan jokatzeko




Zigor Zabalo
hegalekoa
21 urte



Asier Aranburuzabala
pibota
23 urte




Aitzol Velasco
Lehen lerroa
22 urte



David Manso
Lehen lerroa
22 urte

Entzenatzailea

Jesus Mari Herrero izango da aurtengo entrenatzailea. Jesus Marik ondo ezagutzen ditu jokalariai jakariek gehienak bere gidaritzapenean egon zirelako. Herrero 42 urte ditu eta Euskadiko Kutxan egiten du lan. Entrenatzaile lanetan 17 urte daramatza.



FUTBOLA Mondra berriro Atxabalpen



Preferente mailako Mondrak Beti Ona taldearen bisita jasoko du domekan Atxabalpen.

Neurketa arratsaldeko 5etan hasiko da. Arrasatearrek orain arte jokatu bi partiduetan garaipen bat eta berdinketa bat lortu dute. Une honetan 4 puntu dituzte eta sailkapeneko 7. tokian daude.

FUTBOLA Denboraldiko lehen partidua



Mondrako emakumeek Añorga talde sendoa izango dute aurrean zapatuan arratsaldeko 5etan denboraldiko lehen erronkan. Juanina Garaik zuzentzen duen taldearen helburua iaz baino sailkapen hobea lortzea da. Horretarako fitxaje berriak egin dituzte eta itxuraz taldea indartu egin dela esan daiteke. Añorgaren kontra garaipena lortzea zaila izango den arren, jokalariei konfidantza eta morala emateko primeran etorriko litzaieke.

RUGBYA Lagun arteko partidua



Arrasate rugby taldeak aurrendenboraldiko bigarren partidua jokatu du zapatuan arratsaldeko 5etan. Nor baino nor Arrasate eta Sestao izango dira. Gaur arte Patxi Gorosabelen mutilak entrenamendutan fisikoa lantzen ibili dira eta ez dute baloia ikutu. Hori igerri egin zen zapatuan Arratiako Txekorren kontra joko-


tuko partiduan, arrasatearrek 0 eta 12 galdu zuten. Bestalde, Herensugea veterano taldeak 97-98 denboraldiko aurkezpena egingo du irailaren 27an Garagartzan arratsaldeko 4.30etan.

IGERIKETA Denboraldi berria aurrean



Arrasate igeri taldea hasi da denboraldi berria prestatzen. Igerilari nagusiak dagoeneko ari dira entrenatzen Musakolako igerilekuan. Txikiak berriz, urrira arte itxaron beharko dute barruko igerilekuko obrak bukatu arte. Arrasaten igeriketa klasikoa eta aletaduna egiteko aukera dago. Norbaitek igeriketa taldeko partaide izatea nahiko balu, izena eman beharko luke Musakolako kiroldegian. Entrenatzailea Haritz Arrieta da eta kiroldegian arratsaldeko 7.30etan egoten da.

PILOTA Taldeen arteko txapelketa



Pilotariak taldeen arteko txapelketa partidua izango dituzte asteburuan. Zapatu goizean kadeteek eta lehen mailako jubenilek Alkizan jokatu dute. Bigarren mailako jubenilek eta juniorrek Aramaion. Domeka goizean seniorren txanda izango da Altzan.



Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

MAIDER EGUES eta UNAI IPARRAGIRRE (ETBko "JAIK 97"ko AURKEZLEAK)

"Jaiak kalera begira dago"

Zita arratsaldeko Getarako eginda egon arren, Unai ordu laurden eta Maider ordu erdi beranduago agertu dira. Presaka biak, egunari orduak harrapatu nahian ibiliko balira moduan. Lanpetu samar dabilta, eta eskerrak herrietako jai gehienak bukatuta daudenari, bestela zitara agertu ere ez lirateke egingo eta.

-Puntualitatea ez da zuen bertuteetariko bat.

-Maidar: Daukaten defekto bakarra. Egia esan asko dauzkat, baina inpuntualitatea handiena da, sekula ez naiz ailegutzen esandako orduan. Amaren heredentzia.

-Unai: Ni ere ez naiz puntuala, baina Maider baino gehixeago bai.

-Lehendik ere ezagunak zineten, baina zelako harremana sortzen da eguneroko

horrelako lan astun batean?

-Maidar: Ez pentsa hainbeste egon garenik elkarrekin. Jende askok uste du egun osoa elkarrekin egoten ginela, baina ni heltzen nintzenean Unai justu justu ikusten nuen. "Bideo hau, hau eta bestea egin dut" esaten zidan eta nik horren aurkezpena egin behar nuen; b e r a k , berriz, bideoaren muntaia egitera joan behar zuen.

Batzuetan suertatu da bai, arratsalde oso bat eta elkarrekin egotea, eta lehenetik lagunak izan, ATBn elkarrekin egon, eta gero

biok lanean jarraitzen genuela ikusteak poz han-

dia ematen zidan; batez ere ATBregatik. Biok irten gara handik eta ATBk duen garrantziaz ohartzen zara.

-ETB eta produktoretako mundu horretan, badute ATBren inguruko horrelako pertzepziorik?



"Lehendik lagunak izan, ATBn elkarrekin egon, eta gero biok lanean jarraitzen genuela ikusteak poz handia ematen zidan"

...en leihoa besterik ez da”

- **Maider:** Egia esan nik ez dut komentariarik entzun gure gainekoan aldetik, baina barruko jendeak komentatu izan dit ATBtik jende ezaguna atera dela eta abar.

- **Unai:** Neuk ere, han barruan baino kanpoan entzundut komentario gehiago.

- **Maider:** Hori bai, egin ditudan elkarrizketa gehienetan galdetu didate ATBren gainean.

- **Programaren autokritikarik egin duzue?**

- **Maider:** Programak ikusi ditugu, eta programa pila bat maite dut, behar bada lan-taldeagatik izango da. Ez dakit, hori barrutik ikusita.

- **Unai:** Ba niri, batek, kanpotik ikusita esan zidan programa gustatzen zaiola, eta kanpotik ikusten dela egiten dugunon artean ondo konpontzen garela.

- **Maider:** Eta programa-

ren inguruan zehatzago berba egiteko, uste dut programak beste munduko ezer ez duela aportatzen. Ikusteko programa bat da eta 20 minututan ezpainetan irrifartxoarekin egoteko. Kalera begira dagoen leihobat besterik ez da. Ikusgarria da, erraz ikustekoa.

- **Unai:** Egunkari bateko kritika irakurri nuen, eta esaten zuen telebistan denak direla berri txarrak, tristeak etab. eta bapatean Jaiak ikusten duzula eta gainontzeko guttia ahazten duzula. Jaiak-ek ez du ezer konponduko, baina ezta izorratuko ere.

- **Udako aurpegiak izan zarete, nola eramaten da hori?**

- **Maider:** Fama kontuak? Neuri ez zait gustatzen, eta eskerrak jendea modu onean etortzen dena! ATBn aurkezten nuenean jende guztiak ezagutzen ninduen, baina baita egunero ikusi ere, eta kalean lasai joaten nintzen. Kanpoan, gutxiago ikusten gaituztelako gehiago begiratzen gaituzte.

- **Unai:** Ez dut uste famatuak garenik, ezagunak bai. Arrasaten lasai ibiltzea normalea da, jendeak gora eta

behera ikusten gaitu eta, paisaiaren parte gara. Hemendik kanpo, berriz, ez.

- **Telebista txiki batean lana egin edo handi batean, badago alderik?**

- **Unai:** Aurkezle lana berdina da ATBko edo ETBko kamara baten aurrean, erantzunkizuna da desberdina. Lanean ez dago alderik.

- **Maider:** Ke ba! Jaiak programa Arrasatera ekarrita berdin berdin egingo litzateke, San Juanetakoa esate batera. Ez da ETBko plato handi baten egotea, kalean ibili gara kamarekin eta mikrofono batekin.

- **Etorkizuna?**

- **Maider:** Momentuz Jaiak programarekin jarraituko dut abendura arte, zuzendaritzan eta gidoigintzan, eta baita Kili-Kolorekin ere.

- **Unai:** Jaiak-en jarraitzen dut Maiderrekin eta Super Bat-en hasten naiz. ■

“Aurkezle lana berdina da ATBko edo ETBko kamara baten aurrean, erantzunkizuna da desberdina. Lanean ez dago alderik”



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Ikastaro eskaintza zabala

Gizarte Hezkuntzarako Zentroaren eta Gazte Zerbitzuaren eskutik

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako Zentroak 97/98 ikasturtea prestatu du. Alor ezberdinak jorratuko dituzten ikastaroak datorren hilean hasiko dira eta matrikulatzeko epea, datorren astelehenean, irailak 22, zabalduko da. Ikastaroak, astelehenetik ostiralera emango dira zentroak Santa Teresa sako 12. zenbakian duen lokalean. Goizez eta arratsaldez izango dira klaseak, bakoitzak duen ordutegiari egokitu ahal izateko. Ikastaro gehienak urrian hasiko dira, baina badira urtarrilean hasiko direnak ere.



Ofizio bat, dantza edo euskara ikasteko aukera egongo da besteak beste.

ERA GUZTIETAKO IKASTAROAK

Era guztietako gaiak lantzeko aukera egongo da, zentroaren eskaintza benetan zabal delako. Aktibitate gehienak, emakumeari zuzenduta egongo dira, aukera-berdintasun egiazkoa lortzea da eta zentroaren azken helburua. Ikastaroen bidez, osasun gaiak,

baliabide artistiko eta sozio-kulturalak, eta iharduneko trebakuntza garatuko dira.

Arlo sozio-kulturalari dagokionez, euskara, oinarriko ingelesa, psikologia eta alfabetatze ikastaroak emango dira besteak beste. Lan merkatuari begira ofizio bat ikasi nahi dutenentzat, etxetxeko laguntza, 3. adinaren-

dako laguntza, sukaldaritza-gozogintza, jantzigintza, enkuadernazioa eta enplegua bilatzeko teknikak inpartituko dira. Osasun heziketan, erlaxazio masaia emango da. Honez gain, orain arte eskaini den zenbait ikastarok jarraituko du: dantzak, marrazkia, gantxiloa, kitarra, pintura, eskulanak, tapizak, e.a.

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroaren eskaintza, solasaldi, txango, erakusketa, mahai inguru eta bisita kulturalekin osatuko da.

GAZTE ZERBITZUKO IKASTAROAK

Gazte Zerbitzuak ere, hainbat ikastaro antolatu du datozen hiletarako. Momentu honetan, Lore Gazteak-ek emango duen Euskal Dantzen ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroa, urriaren 10ean hasiko da eta Santamasetara arte iraungo du. Hamalau urte gorakoentzat dago zuzenduta eta bikote mixtoek izango dute lehentasuna. Ostiraletan emango dira klaseak, 7etatik 8.30etara. Matrikulak 1.000 pta balio du. Izenemateak Gazte Bulegoan.

Gazte zerbitzuak ere, beste ikastaro batzuk antolatuko ditu. Horien berri matrikulazio epeak zabaldu ahala izango duzue gure orrietan.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

JULIO GALARTA, MARGOLARIA

“Margotzea, amorruzko borroka etengabea da”

Baseri zaharren eta Euskal Herriko paisaien goxotasuna margotzea du gustoko. Berak dienez, ez du sekula etxeorraz bat margotuko, nahiz eta horietako baten bizi. 19. pisuan, bere kuadroez inguratuta, margotzearen emozioaz berba egiten du. 80 urte baditu ere, gazte sentiarazten duen emozioaz.

- Zuretako zer da margotzea?

Berez sortzen den sentimendu bat. Orientazioa behar da, jakina, baina emozioz betetako lana da. Roneon lan egiten nuenean, zapatuan bizkor bazkaldu eta irtetzerakoan Landarako tren zaharra hartzen nuen. Eskoriatzara edo edozein txokotara joateko. Esfortzu handia exijitzen du margotzeak.


Koloreen ñabardura, armonia, polikromatuak, kontra argiak, eguraldia, mila gauza hartu behar da kontuan. Margotzeko amorrua behar da, etengabeko borroka delako.

- Enkarguz ere lan asko egin duzu...

- Bai, eta gainera askotan motibo berdina lau edo bost bider egin behar izan dut, familia bereko lagunendako. Enkarguek badute euren zailtasuna: eskatzen duenaren arabera margotu behar da. Ez dago inprobisaziorako askatasun larregirik.

- Izan duzu saltzeko orduan pena handia eman dizun kuadrorik?

- Denak eman didate pena, baina horrelakoa da bizitza. Sarritan gustoko izan ditudan kuadroak errepikatu egin ditut, baina sekula ez da berdin irtetzen.



Argiak, urtaroak, norberaren sentimenduak...faktore askok ezberdina egiten du kuadro bakoitza.

- Arrasaten asko zabaldu da margotzearekiko zaletasuna. Zer diozu honen inguruan?

- Nire garaian bi edo hiru margolari besterik ez ginen eta gaur egun berrehundik gora daude. Polita da afizioa egotea baina eskola baten falta nabari da. Gaur egun gainera, estudioetan lan egiteko eta kopiatzeko joera handia dago. Margolariak kalera irten behar du eta eskua solte utzi; ez diapositiba edo argazki baten kopia zehatza egin. Horrela ez dago emoziorik. Roneoko prentsan gabiltzala ematen du, pieza ipini eta egin. Norberaren bizimodua aurrera ateratzeko margotzen bada ondo dago; bestela, emozio barik, ez du merezi.

“Margolariak kalera irten behar du eta eskua solte utzi; ez diapositiba edo argazki baten kopia zehatza egin”

aste gazte

■ BEKAK

• 97-98 ikasturtean uni-bertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak, deialdi orokorra. Oinarriak Gazte Bulegoan eskura daitezke. Epea: urriak 15.

• Juan March Institutoan Gizarte Zientzietako goi ikasketak burutzeko bekak, 94 urtetik aurrera lizentziatura ikasketak bukatu dituztenei zuzenduak. Epea: abenduak 18.

■ LANA

• Getxoko Jesusen Bihotza Udal Erresidentzian, laguntza arduradun bat eta administrari bat behar dituzte. Epea: urriak 24.

• Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, logopeda bat behar du. Epea: irailak 29.

• Ibarako Udala, kultura teknikari baten beharrean dago. Epea: irailak 29.

• Nafarroako Herri Unibertsitateak liburutegiko zuzendariorde bat behar du. Epea: urriak 1.

• Bergarako Udalak, osasun laguntzaile teknika baten premia du. Epea: urriak 2.

• Bilboko Udalak, liburutegirako bost laguntzaile. Epea: urriak, oraindik zehazteke.

■ LEHIAKETAK

• Elgoibarko V. komiki lehiaketa. zuribeltzean, euskaraz zein gazteleraz, gai eta teknika libreak. Luzera: 4 orrialde. Epea: urriak 13.

■ IKASTARO GAZTEAK

• Euskal Dantzak, Lore Gazteak taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Urriaren 10etatik Santamasak arte. Ostiralean, 7etatik 8.30ak arte. Matrikula: 1.000 pta.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Gesalibarren etxebizitza salgai. 2.000 m²ko lursaila batean dago. Tel.: 27 58 34.

• Bergaran pisua salgai: bi logela, egongela, bainua... Tel.: 76 49 30.

• Osintxun pisua salgai. 75 m². Tel.: 76 36 61. Arratsaldez.

• Bizkaia etorbidean 85 m²ko etxebizitza salgai. Hirugarren solairua. Tel.: 79 22 92.

• Erdialdean pisua salgai. Erdi jantzita 90 m². Ganbara eta garajearekin. Tel.: 79 42 13.

• Oñatiko alde zaharrean 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

3. Errentan emateko

• Ikasleendako pisua Ferixalekuan. Tel.: 79 12 81.

• Ikasleendako pisua San Andresen. Tel.: 79 39 14.

• Aretxabaletan guztiz jantzitako etxebizitza alokatzen zaie ikasleei. Tel.: 79 47 04. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

• Uribe auzoan pisua alokagai. Hiru logela, bi komun, saloia eta sukaldea. Tel.: (945) 13 29 08.

4. Errentan hartzeko

• Abuztuan Torrevejan apartamentua alokatu nahi dut lehenengo hamabostaldian. Tel.: 79 57 79.

• Bikotea pisu bila Arrasaten. Tel.: 79 76 88.

• Gasteizen etxebizitza alokatzeko lagun baten bila nabil. Tel.: 79 57 31.

5. Etxe konpartituak

• Arrasaten pisua konpartituko nuke gela bat alokatuz. Tel.: 52 48 79. Asier.

• Etxea konpartitu nahi dut Arrasaten. Tel.: 79 95 11. Kieran.

• Donostian pisua osatzeko lagun bat behar dugu. Tel.: (94) 683 15 30.

• Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Jana eta etxeko lanak egiteko pertsona daukagu. Tel.: 79 51 10 Saioa edo 79 28 05 Onintza.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Bi ikaslek hirugarren bat behar dugu Erguinen pisua osatzeko. Hilero 20.000 pta. Tel.: (94) 491 26 17 edo (94) 491 06 69.

• Lagun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Tel.: 98 547 27 79 edo (94) 441 77 21. Monse.

• Pisua konpartitzeko 3 edo 4 ikasle behar ditugu Eskola inguruan. Tel.: (94) 447 32 99.

• Bilbon, Santutxu kalean gelak alokatzen dira. Tel.: (94) 433 80 81. Maribel. Gauez.

• Bakarrik bizi den emakume batek etxea konpartituko luke San Andres auzoan. Tel.: 79 15 96.

• Erguin kalean garajea prezio onean salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garajea alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

GARAJEAK

7. Saldu

• Udalpe kalean garaje itxia salgai. 18 m². Tel.: 79 64 79. Lan orduetan, Elena.

• Garajea salgai edo alokairuan Uribarri etorbideko 3an. Tel.: 79 60 96.

• Garajea salgai Munarren. Tel.: 79 44 07.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko lokala salgai. Tel.: 79 07 24

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

15. Errentan hartzeko

• Lokal txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 79 75 78. Esther.

LANA

17. Eskaintzak

• Zazpi urteko esperientzia duen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 87 40.

• Emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak eta baita etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 40 72.

• Neska euskalduna gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 48 97 eta 79 81 25. Arratsaldez.

• Esperientziadun emakumea prest goizez pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko prest. Manikura, pedikura, depilazioa. Diplomaduna. *Pivot point* tituloduna. Tel.: 79 03 94.

• Emakumea gertu etxeak, bulegoak edo eskailerak garbitzeko. Tel.: 79 80 96.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko gertu. Tel.: 79 72 92.

18. Eskaerak

• Emakume bat behar dugu bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 95 05.

• Emakume behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 00 86.

• Bi ume zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 77 00 19.

• Umea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar dugu. Tel.: 77 13 12.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Kotxea beharrezko da. Tel.: 908 77 53 14 edo 77 01 73.

• Emakume euskalduna behar da 4.30etatik 8.30etara bi ume zaintzeko. Dei egin asteleheneetik ostegunera gaueko 9.30etatik 10etara. Tel.: 77 01 30.

19. Bestelakoak

- Euskaraz, gaztelaz eta ingelesezko itzulpenak egiten dira. Tel.: 79 79 12. Mila.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- UBira arteko klase partikularrak ematen dira. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 46 75. Amaia

- Injenerutza kimikoak matematika, marrazketa, kimika eta fisikako klaseak emateko gertu. Tel.: 79 25 85.

- Esperientziadun neska klase partikularrak emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

- Magisteritza daukat eta klase partikularrak emango nituzke Musakolan. Tel.: 79 35 24.

- OHO, DBH etea beste zenbait ikasgaietako klase partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

- Irakasle tituloduna eskola partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

- Euskararen 2. urratsa emango dut ordubateetik 3etara. Ordubeteko saiolak. Tel.: 77 04 98.

- ESO eta LOGSEko klase partikularrak ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

- Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

- Bi motor salgai. Suzuki DR Big 50. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 34 14. Aitzol.

- Vespa Iris 200 motorra salgai. Bl-AK. Egoera onean eta merke. Tel.: 71 51 29.

- Suzuki Address salgai. Berria. 4.000 km. 100.000 pta. Tel.: 939 44 25 44. Juan.

- Ford Fiesta XR2 gorria salgai. 275.000 pta. Tel.: 907 94 29 24.

- Gaciva Mito motorra salgai. 125 cc. Beltza. Prezioa: 275.000 pta. Tel.: 907 94 29 24.

DENETARIK

26. Saldu

- Prestige modelo Alpen-Kreuserkarro den-da salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 61 82.

- Arrue Olimpia umeendako kotxea salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 74 09.

- Tabernarako 4 mahai eta 16 aulkik salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Tel.: 79 74 09.

- Ezkontzarako soinekoa salgai. 44 tailakoa. Aurtengoa. Merkea. Tel.: 71 51 29.

- Hozkailu bat eta sukalde bat salgai. la berriak daude. Tel.: 79 44 86.

- Bi antxume, 15 kilokoak saltzen ditut. Tel.: 71 49 73. Alberto.

- Emilio Tucci-ren frak bat salgai dut. Egoera onean dago. Tel.: 79 14 64. Gaueko 9etatik aurrera.

- Larrabea Golf Klubaren 3 akzio saltzen ditut ebxe aldaketagatik. Prezio interesgarria. Tel.: (945) 14 35 69.

- Gasoleozko berogailua salgai. Prezioa: 25.000 pta. Egoera ona. 500 litroko depositoa. Tel.: 77 04 61.

27. Erosi

- Ilea lehortzeko tresna profesionala erosiko nuke. Tel.: 71 41 25. Ana.

31. Galdu

- Urrezko kate bat galdu nuen Erguin edo Eskola inguruan. Tel.: 71 20 72. Dorleta.

32. Aurkitu

- Peugeot gorri bat BI matrikuladuna, ostiralean, irailaren 12an, gaueko 10.30ak inguruan lau gazte autostop ez hartu eta bertan giltzak ahaztu zituzten. Gazteak Elorriorako jaietara zihoazen. Giltzak Udaltzaingoa utzi ditut.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Urria: Italiara joango den norbaitekin gustora bidaiatuko nuke. Boloñara noa. Gastuak erdibana. Dei egin eguerdian 79 34 91 telefonora. Jabi.

- Zumarragara egunero kobrez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Eguerditan.

Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.

Udaberriko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko Kale, 30
Tel.: 79 05 80
ARRASATE

■ Horoskopoa

- **Aries** Dotore jaio zinen, baina itxura txarra hartzen ari zara.
- **Taurus** Ingurukoak lanean eta zu euliak kontatzen.
- **Gemini** Betaurrekoak jantzita eramango bazenitu...
- **Cancer** Zorionak! Lanean hasi eta oraindik bizirik zaude.
- **Leo** Aitzakia larregi bilatzen duzu lanea ez joateko.
- **Virgo** Zein pozik zauden maiteminduta zaudenetik.
- **Libra** Modan egotea gauza bat da, baina zurea obsesioa da.
- **Scorpio** Eguraldiaren gaiarekin ez duzu ligatuko. Gaitz aldatu.
- **Sagitaris** Noiz dutxatu zinen azkenengo aldiz?
- **Capricorn** Ardo usaina dago zure koxean. Zabaldu leihoak.
- **Aquarius** Manikia dirudizu. Forman zaudenik ezin ukatu.
- **Piscis** Espioitzan lan eginez gero, one-na izango zinateke.

■ Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12			13	14		15	
16		17			18		
19				20			21
22				23			


JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Joko batean parte hartzen duen pertsona. 9. Izaki bizidunen gorputza aztertzen duen zientzia. 10. Alkate eta zinegotziek osatutako erakundea. 11. Ahabi. 12. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 13. Galdetzen diguten zerbait ukatzeko erabiltzen den hitza. 15. (Ald.) Kenzaburo, 1994ko Literatura Nobel Saria jaso zuen, idazlearen izena. 16. Zerbait esaten duena, bereziki irrati-telebistan hitz egiten aritzen dena. 19. Nahi, gogo. 20. Osoa, ezer ez falta zaiona. 22. Mitologia grekoan, Kadmo eta Harmoniaren alaba. 23. Nonbait.

Bertikalak 1. Ramon, AUKEAko gerentearen abizena. 2. Aberastasuna. 3. Komando Autonomo Antikapitalista. 4. Atletismoa egiten duena. 5. Animalien atsedeen egoera, inguruarekiko ohartasuna etenik dagoena. 6. Seme-alabak dituen emakumezkoa. 7. Galiziako eskualdea. 8. Trebe. 14. Zamorako ibilgailuetan. 17. Sasoi, garai. 18. Piraten edari alkoholikoa. 21. Bere egitekoa ongi betetzen duena.

Horizontalak: 1. Jokalari. 9. Anatomia. 10. Udal. 11. Ahi. 12. Ra. 13. Ez. 15. (Ald.) Oe. 16. Esatari. 17. Aro. 18. Ron. 21. On.


Bertikalak: 1. Jauregi. 2. Ondasun. 3. K.A.A. 4. Aitela. 5. Lo. 6. Ama. 7. Ribetro. 8. Iai. 14. Za. 19. Gura. 20. Oro. 22. Ino. 23. Inon.



weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE




PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

Arrasate Telebistaren denboraldi berria urriaren 6an hasiko da

Iraila osoa lanean pasa eta gero, denboraldi berriari eutsiko dio Arrasate Telebistak eta eguneroko informatiboaren ostean, programa ezberdinak eskainiko ditu. ATB-ko programazioaren klasikoak, Mondrasport, Kukaraxta Motel eta Astebete, bidaiei buruzko Munduari Buelbaka programarekin eta berrieekin txandakatuko dira.

Astearte gauetan bi programek hartuko dute txanda: Lotsa Barik eta Burua Astinduz. Lotsa Barik, betiko ildotik abiatuko da baina oraingo honetan aurkezle berri batekin. Nerea Barrutia Granadan ikasketak egiten dabilenez, Maier Urangak lagun berria izango du bere alboan: Suar Aizpuru, plaentxiarra. Pertsonaia ezagunak gonbidatuko dituzte, lotsarik gabeko galdeketa egiteko. Kalean ere, gonbidatuari buruzko galderak egingo dira eta bideoklip musikalekin osatuko da programa.

Burua Astinduz-eko muti-



Maier eta Suar, Lotsarik gabe.

lek musika gogorrez beteko dute ATBko pantaila. Azken bideoklipak, musika munduko berriak, agenda, inguruko herrietan grabatutako kon-

tzertu gogorrenen irudiak eta taldeekin elkarrizketak. Iñaki, Baños, Jago, Iban eta Enekok ederki astinduko digute burua.

Zapatu goizetan kontu ugari Arrasate Irratian

Arrasate Irratiko zapatu goizak programazio aldaketarekin datoz. Bihartik aurrera, hau berau izango da goizak emango duena: goizeko 9etan albistegia eta 10etan Jailarai programa emitituko da txiki-nendako. Goizeko 11etan Zoroklasikoak eta 12etatik 2ak arte Bi zoro eta zu programa. Bi orduko iraupena izango du programa berri horrek. Badakituzue beraz, zapatu goizak konpainia onean pasa nahi badituzue, Arrasate Irratiko zenbakiak bilatu dialean.



Bi zoro eta zu saioko aurkezleak.



ZIRT ZIRT ILEAPAINDEGIKO LANTALDEA BERRIZ ERE ZUEKIN!

GOGORATU 25 urte baino gazteagoak %20 ko beherapena daukatela.

Eta MUTILAK, asteartetan prezio berezia.

Ordutegia:

Goizeko 10:00etatik 19:00tara.

(Eguerdian zabalik)

Asteleheneretan: 14.00etatik aurrera.

Gorbea kalea 2.zkia,

(Eroski handiaren parean)

Egin zure erretserba 77 09 44 telefonoan.



ILEAPAINDEGIA



Besaide Eguna domekan, eta Besaideko argazki bat aste honetan. Baina ez Besaide Egunekoa. Sasoi batean *finalista eguna* izenezko ospakizuna egiten zen urtean behin. Mendi Federakuntzak antolatutako lehiaketa antzeko bat izaten zen. Mendi talde

bakoitzak txartelak banatzen zituen bere bazkideen artean, mendiren bat igotzen zutenean euren izena jarri eta mendi ton-torrean egoten diren buzoietan sar zitzaten. Urtearen bukaeran txartelen kontakizuna egin, eta 25 mendi igo edo 50 mila edo 100 mila metro egiten zutenei domina ematen zitzaien.

1962an okasiorako bildu-

takoak dira argazkikoak. Beti bezala, ezkerretik eskumara eta zutik daudenetik hasita, hauek dira: Ojanguren, Arana, Petra Mari Inda, Ana Mari Abetxuko, Mari Karmen Altuna, ezezaguna, Juan Jose Etxabe, Jabier Zubillaga, Emilio Garro, Urrutia, ezezaguna, ezezaguna, Uribarrena aita-semeak, Iñaki Mujika, Vitoria, ezezaguna. Makur-

tutakoak: Juantxo Axpe, napar bat, Juan Mari Lasagabaster, Milagros Azkoaga, Eugenio, Zubizarreta, Iñaki Etxabe, Benustiano Uranga, Aurelio Gonzalez, Pilar del Valle, eta Lurdes Egidazu.

Urtea: 1962.

Argazkia eta informazioa: Lurdes Egidazu.



MONTTE ERANTZUN INTEGRALA.

Montte
EKIPAMENDU INTEGRALA • BARNE DISEINUA

- ESKOLARAKO BEHAR DUZUN DENA
- INFORMATIKA
- IKUSENTZUTEZKOAK
- BULEGO ALTZARIAK ETA TEKNOLOGI BERRIAK (ESO)
- LIBURUTEGIAK
- APALAK
- GORTINAK

Pablo Uranga, 1
Tel.: 79 38 22
Faxa: 79 36 78
ARRASATE

Poligono Industrial, 10
Tel.: 88 88 00
Faxa: 88 88 07
BEASAIN

ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIAK, EGA eta ALFABETATZE

Matrikula epea irailak 26

Beka sistema

Informazioa eta matrikula: ERDU AEK

EUSKALTEGIA

Garibai kalea 14, 3 (Sindikatu etxea) •

Tel.: 77 03 69

Udalaren laguntzaz

**EZ UTZI
GEURE GARRA
ITZALTZEN!**



Izena eman

**EUSKARA
GALDUZ GERO
AKABO
GURE HERRIA**

aeK

EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETAN (FORU eta ONDARROAN, T.F. 94/625 35 96)



**Zeramika
erakusketa
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tel.: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80
ARRASATE

Bihotzak
gida zaitzala.



erria
Opel zure bizitzako motorea
Corsa

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.
Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

OPEL 
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURE ERABERIA

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.